

# MIGUEL ALTUNA LHII

## EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA (2023-2027)



Agirrebidea, 2• Bergara • [www.maltuna.eus](http://www.maltuna.eus) • [info@maltuna.eus](mailto:info@maltuna.eus) • Tel.: 943 89 92 70

# 2023-2028ko BISIOA, ILDO ESTRATEGIKO ETA EKINTZAK

Miguel Altuna Lanbide Heziketak eragile aktibo izan nahi du gizartea eraldatzen, euskara oinarri hartuta eta hizkuntza aniztasuna kudeatuta. Euskaraz bizi eta lan egin nahi duenarentzat erreferentea den ikastetxea eta interes-talde guztiekin elkarlanean arituko dena. Gertuko gizartea eta enpresak euskalduntzen bidelagun izan nahi du

E  
R  
R  
O  
N  
K  
A  
K

- Kanpo komunikazio eta irudian euskararen erabilera bermatzea.
- Euskararen erabilera handitzea.
- Langile eta ikasleen hizkuntza ohituretan eragitea.
- Euskarazko eskaintza akademikoa handitzea
- Enpresa munduan euskararen erabilera areagotzen laguntzea.
- Langileei euskaraz lan egiteko aldeko testuingurua sortzea baliabide, dinamika eta aldeko politikekin
- ikastetxeko hizkuntzen kudeaketan sakontzea

## BALIOAK

- GIZARTE ERANTZUKIZUNA
- LIDERGO PARTEKATUA
- HARREMANAK ETA TALDE-LANA
- HURBILTASUNA, NATURALITASUNA

Agirrebidea, 2• Bergara • [www.maltuna.eus](http://www.maltuna.eus) • [info@maltuna.eus](mailto:info@maltuna.eus) • Tel.: 943 89 92 70

## 2023-2024 IKASTURTEA:ERRONKAK, HELBURUAK ETA EKINTZAK

### I. Kanpo komunikazio eta irudian euskararen erabilera bermatzea

HELBURUAK	ARDURADUNA	EPEA
<p>1. ikastetxearen irudi euskalduna zaintzea</p> <p>1.1 Kanpo begirako elementuetako (errotulazioa, web orria, kanpainak...) hizkuntza irizpideen betetze mailari jarraipena egitea urtean behin gutxienez</p> <p>1.2 Miguel Altunaren kokapena Euskal Herriko mapan adierazi</p> <p>1.3 Bikaintasunak sortzen dituen harremanetan eta ekintzetan ikastetxearen hizkuntza errealitatearen berri eman eta euskarari lekua egin (agurrak euskaraz, ohiko esaldien hiztegitxoak banatu...)</p>		
<p>2. Herritarrekiko harremanetan euskararen erabilera bermatzea</p> <p>2.1 Ezarritako hizkuntza irizpideak egokitu eta jarraipena egin</p> <p>2.2 Herritarrak euskara erabiltzera gonbidatzeko ikurrak, mezuak, landu eta jarri</p> <p>2.3 Lehen harrera egiten duten pertsonekin (atezaintza, idazkaritza...) tarteka bilerak egin irizpideen betetze maila aztertzeke</p> <p>2.4 Ikastetxera egiten diren bisitetan euskararen erabilera bermatzeko protokoloa adostu</p> <p>2.5 Ikastetxeak antolatzen dituen ekitaldietan (ate irekiak, aurkezpen saioak...) euskararen erabilera bermatzeko protokoloa idatzi eta betetze mailaren jarraipena egin</p>		

### II. Erabilera handitzea eremu formalean eta ez-formalean

HELBURUAK	ARDURADUNA	EPEA
<p>3.</p> <p>- Errotulazioari dagozkion irizpideak</p>		

<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zabalkunde handiko idatziei dagozkien irizpideak</li> <li>- Baliabide informatikoei dagozkien irizpideak</li> <li>- Barne prestakuntzari dagozkion irizpideak</li> <li>- Klustroei dagozkien irizpideak</li> <li>- Kanpo harremanei dagozkien irizpideak</li> </ul> <p><b>3.1</b> Ikastetxearen Hizkuntza irizpideak eguneratu bideratu</p> <p><b>3.2</b> Hizkuntza irizpideen betetze mailari jarraipena egiteko galdetegi bat sortu eta urtean bitan bete eta neurri zuzentzaileak ezartzea</p> <p><b>3.3</b> Mintegi bileretan ikastetxearen hizkuntza politikari jarraipena egin</p> <p><b>3.4</b> Ordenagailu berrien konfigurazioa euskaraz egin</p> <p><b>3.5</b> Euskarazko aplikazio informatikoak eskatu.</p>	
<p><b>4. irAKASLEEN ARTEKO HARREMANAK EUSKARAZ IZATEA ZAINTEA</b></p> <p><b>4.1</b> Irakasleen arteko ahozko erabilera neurtu</p> <p><b>4.2</b> Irakasleen arteko idatzizko erabilera neurtu</p> <p><b>4.3</b> Ikastetxean egiten diren bileretan euskara erabili ahoz eta idatziz.</p> <p><b>4.4</b> Euskara gehiago erabiltzeko konpromisoak hartu (mintzagrama, eusle...)</p> <p><b>4.5</b> Irakasle berrien harreran euskarak ikastetxean zer leku izan behar duen adierazi.</p> <p><b>4.6</b> Newsletterrean euskararen normalizazioarekin lotutako albisteak idatzi</p>	
<p><b>5. d EREDUAN EUSKARA HUTSEZ JARDUTEA</b></p>	<p style="text-align: right;">Arduraduna</p> <p style="text-align: right;">epea</p>

<p><b>5.1</b> D ereduko harremanetan euskarak zer leku izango duen eta nola erabiliko den zehaztu, adostu eta jarraipena egiteko modua finkatu</p> <p><b>5.2</b> Ikasturtea aurkezteko 1. bileran hizkuntza portaerak zeintzuk izango diren azaldu/adostu</p> <p><b>5.3</b> Mintegietan irakasleen artean partekatu hizkuntza portaeren gaineko praktikak.</p> <p><b>5.4</b> Egoera ezberdinetan euskarari eusteko baliabideak eskaini (TELP, Itzultzaile neuronalak...)</p> <p><b>5.5</b> Lan munduan euskarak duen lekua ikusteko inguruko enpresetako euskara planak ezagutu</p>	
<p><b>6.</b> A ereduko taldeetan euskararen presentzia bermatu</p> <p><b>6.1</b> Irakasle-ikasle euskaldunen arteko harremanetan euskara erabiltzeko joera bultzatu</p> <p><b>6.2</b> Ikasleak euskara ikastera animatu eta dituzten aukeren berri eman.</p> <p><b>6.3</b> Lan munduan euskarak duen lekua ikusteko inguruko enpresetako euskara planak ezagutu</p> <p><b>6.4</b> Ikasle euskaldunei euskarazko materiala eman</p>	

### III. Ikastetxeko kideen arteko hizkuntza ohituretan eragitea

HELBURUAK	ARDURADUNA	EPEA
<p><b>7.</b> ikasleen hizkuntza ohituretan eragitea</p> <p><b>7.1</b> Ikasleen arteko Euskara Batzordea sendotu/eratu.</p> <p><b>7.2</b> Ikasleen euskarazko jarrerak hobetzeko plana egin.</p> <p><b>7.3</b> Motibazio saioak egin ikasleekin.</p> <p><b>7.4</b> Urtero ekintza bat egin ikasleen euskararekiko jarrera hobetzeko.</p> <p><b>7.5</b> Herri mailan antolatzen diren ekimenak (Euskaraldia, Korrika, euskararen eguna, egunean behin...) baliatu motibazioa lantzeko</p>		

7.6	Portaeren gaineko pilulak sortu eta zabaldu		
-----	---	--	--

#### IV. Euskarazko eskaintza akademikoa handitzea

HELBURUAK	ARDURADUNA	EPEA
<p>8. Euskara gehiago erabiltzeko aprobetxatzea</p> <p>8.1 Lanerako prestakuntzan euskara kudeatzeko lanak egin.</p> <p>8.2 Praktikak euskaraz nahi dituzten ikasleei aukera eman.</p> <p>8.3 Duala euskaraz programan sartu.</p> <p>8.4 Euskarazko beste lerrorik ireki daitekeen aztertu</p> <p>8.5 Marketinean indarra eman euskarazko zikloei</p> <p>8.6 Ikastaro berdinak izanez gero, gutxienez bat euskaraz izatea bermatu</p>		

#### V. Enpresa munduan euskararen erabilera areagotzen laguntzea.

HELBURUAK	ARDURADUNA	EPEA
<p>9.</p> <p>9.1 Harixa proiektuan parte hartzea</p> <p>9.2 Laneki programarekin lankidetzan aritu</p> <p>9.3 Praktikak eta DUALA euskaraz izatea sustatu</p> <p>9.4 Lan praktikak euskaraz egitearren dauden dirulaguntzen berri eman</p>		

#### VI. Langile euskaldunei euskaraz lan egiteko aldeko testuingurua sortzea

HELBURUAK	ARDURADUNA	EPEA
<p>10. euskaraz lan egiteko baliabideak handitzea</p> <p>10.1 Euskaraz lan egiteko dauden baliabideak langileen eskura jarri.</p>		

10.2	Itzultzaile automatikoa erabiltzeko irizpideak ezarri.		
10.3	Laneki programarekin lankidetzan aritu.		

## VII. Ikastetxeko hizkuntzen kudeaketan sakontzea.

HELBURUAK	ARDURADUNA	EPEA
<p><b>11. PLANA KOMUNIKATzea</b></p> <p>11.1 Zuzendariari plana aurkeztu eta ekarpenak jaso</p> <p>11.2 Mintegi Bileretan planaren eta hizkuntza jarraibideen berri eman eta ekarpenak jaso</p> <p>11.3 Ekarpen guztiak aztertu HNBn eta planean beharrezko ikusten diren egokitzapenak egin</p> <p>11.4 Plana argitaratu eta intranetean eskura jarri</p>		
<p><b>12. ikastetxeko langile guztien inplikazioa lortzea</b></p> <p>12.1 Langileen iritzia jasotzea (Galdetegia, elkarrizketak, focus groupak...)</p> <p>12.2 Ikasleek duten pertzepzioa jaso eta aztertu</p> <p>12.3 Iradokizunak, ekarpenak... egiteko kanalak zabaldu</p> <p>12.4 Arduradunen lidergoa landu. Zuzendaritza eta mintegietako arduradunak inplikatu</p>		
<p><b>13. ikastetxeko hornitzaileei hizkuntza irizpideak betetzeko eskatzea</b></p> <p>13.1 Irizpideen berri ematea</p> <p>13.2 Kontratuetan hizkuntza-klausula txertatu eta jarraipena egin</p>	ARDURADUNA	EPEA
<p><b>14. BIKAIN ZIURTAGIRIAN URREZKOA LORTZEA</b></p> <p>14.1 Kemen markora egokitu plana</p>		

14.2	SAREGIN aplikazioa bete eta autodiagnostikoa osatu		
14.3	Bikain ziurtagiriaren ebaluazioa eskatu		

# GOBERNANTZA ETA JARRAIPEN SISTEMA

Euskara planaren eragile guztien koordinazioak, lidergoak eta antolaketa planerako funtsezkoak direla jakitun izanda, ahalegin berezia egingo dugu eragile guztien komunikazioa eta elkarlana ondo josten.

Honakoak izango dira antolaketa eta funtzioak:

**Hizkuntza Normalizatzeko Batzordea:** erakundeko estamentu guztiak egongo dira ordezkatura: zuzendaritza, irakasleak, irakasle ez diren langileak eta ikasleak.

Antolaketa: parte-hartzailea, komunikatiboa, konfiantza giroa sustatuko duena eta partaideek bere sentituko dutena. Urtean gutxienez 9 alditan elkartuko da.

Funtzioak:

- Euskara planaren norabidea aztertu eta proposamenak egin
- Proposamenak erabaki organoetara bideratu
- Bere gain hartutako ardurak bete
- Urteko gestio plana zehaztu eta jarraipena egin
- Euskara planari buruzko komunikazioa ziurtatu
- Euskara planaren ebaluazioa egin eta ekintza zuzentzaileak proposatu

**Zuzendaritza:** euskara plana eta hizkuntza irizpideak onartu eta jarraipena egiteko ardura izango du. Aginte panelaren jarraipena egingo du kudeaketa planean jarraipenerako adierazleak txertatuz.

**Lantaldeak:** urtez urte eta beharren arabera sortuko dira gai espezifikoak lantzeko lantaldeak. Euskara Normalizatzeko Batzordearen eskutik antolatu eta bideratuko dira lantaldeak, baina zuzendariaren koordinazio estuan jardungo du. Kideak gai espezifikoekin lotura zuzena duten langileak izango dira, gaiaren ezagutza tekniko edota motibazioa dutenak.

**Hizkuntza Normalizazio Teknikariak:** euskara planaren gaineko ardura nagusia bere gain izango dute. Zentzu horretan, planari lotutako jardunbideak bere lanpostuari esleituta izango ditu, baita horiei

ekiteko orduak ere. Bere funtzioak izango dira planaren koordinazioa, kanpo proiektzioa (esate baterako, Harixa, Laneki edo Ulibarri programekin lotura egin)

# AGINTE PANELA

## AGINTE PANELA

### KUDEAKETA

Langileen elebitasun tasa %  
 Lanpostuko hizk. esk. (HE) betetzen ez dutenen %  
 Zerbitzua ematen duten lanpostuen HEn betetze maila %

### ZERBITZU HIZKUNTZA

- Webgunearen euskararen erabilera %
- Sare sozialetan euskararen erabilera %
- Argitalpen eta iragarkietan euskararen erabilera %
- Harreran telefonoz zein aurrez aurreko euskararen **eskaintza** %
- Kanpora egindako bisiten euskararen erabilera %
- Eskolara egindako bisitak eta antolatutako hitzaldien euskararen erabilera %
- Errotulazioan euskararen erabilera %

### LAN HIZKUNTZA

- Ahozko erabilera informala (%)
  - Barne komunikazioan email orokorren euskararen erabilera (%)
  - Langileen arteko e-mailen %
  - euskararen erabilera barne dokumentazioan %
  - Laneko formazio saioetako **eskaintza** %
  - Ofimatika eta sistema eragilea euskaraz %
- Urteko Gestio Planaren betetze maila (%)
  - Euskara planaren berri jaso duten langileen %
  - Euskara planaren inguruan sortutako ekimenetan parte hartu dutenen %

Agirrebidea, 2• Bergara • [www.maltuna.eus](http://www.maltuna.eus) • [info@maltuna.eus](mailto:info@maltuna.eus) • Tel.: 943 89 92 70